



MARI JOSE BASTARRIKA GARATE

Aspaldi honetan ohitu egin gara plaza inguruan emakume hau itsuen kupoia saltzen ikusten; eguraldi on zein txarrarekin egunero hortxe egoten da. Baina, laster jarriko omen diote kioskoa

ere neguko temperatura bajuak aguantatzeko. Guk udaberri hasierako egun eguzkitsu batean egin diogu elkarrizketa bera eta bere lanbideari buruz gehiago jakin guran.

-Noiztik saltzen duzu itsuen kupoia?

Orain dela urtebete, iazko apirilaren lehenengo egunean hasi nintzen. Lehenagotik neukan eskatua, baina Gipuzkoa mailan beste 9 zain zeudela eta nahiko gaizki jarri zizkidaten gauzak. Dena dela, nere aurretik kupoia saltzen zuen Anjelen baja betetzea planteatu zidaten, baina, bien bitartean bera heriotza gertatu zen eta, ia ustekabean, bere orde z jarri ninduten.

-Ze gaitz duzu begietan?

Jaiotzeko arazo bat da, begitzuringoaren edo kornearen andeza deitzen diote; bi aldiz kornearen trasplantea egin didate, baina bietan erretxazoa izan dut eta arazo haundiak beti, bestela, izatez, gaitza nahiko egonkorra da.

-Zenbateraino ikusten duzu?

Oso gutxi, ehundik 3a edo. Txikia nintzenez gehiago ikusten nuen, orduan asko irakurtzen nuen eta nik uste dut horrek ere kalte egin zidala, ze 17-18 urterekin bista asko galdu nuen.


-Eta orain irakurtzeko gai al zara?

Oso letra handia izan behar du nik irakurri ahal izateko, egunkarietako titularrak eta horrelakoak. *Braille*z irakurtzen eta idazten ere ikasi nuen baina orain ez nago entrenatuta.

-Egunero-ko bizimodu ondo moldatzen al zara?

Bai, umetatik

Bai, umetatik



ohitu nintzen neu bakarrik defenditzen. Gertatzen dena da guk gauza asko buruz ikasten ditugula: espalioa non bukatzen den, koskak non dauden... arazoak leku ezezagunetara goazenean izaten ditugu.

-Noiztik bizi zara Oñatin?

Duela 11 urte oñatiar batekin ezkondu nintzenez hemen enpadronatu nintzen, baina nere herrian, Urretxun, denbora asko ematen genuen, nik han lanegiten nuen eta. Hala ere, lehenengo semea jaio zenez, hemen geratu ginen.

-Kupoia saltzeko zer baldintza bete behar dira?

Hasteko ONCE-ko kidea izan behar zara eta gero egunean gutxienez 300 kupoi saltzea eskatzen dute.

-Asko kostatzen da hainbeste saltzea?

Bueno, piska bat kostatzen da, kalean ordu asko egon behar da hainbeste saltzeko baina lortzen dugu. Ni orain gustora nago; batz bestea 500 inguruan saltzen ditut, egun batzuetan piska bat pasatzen banaiz ere, hortik beherakoak gehiago izaten dira.

PEÑAKOBA

AUTOESKOLA

Arkitekto Lizaur
Tfnoa: 78 05 60 OÑATI

Zarugalde, 46 Tfnoa: 79 29 93
ARRASATE



GARAJE ALONAZPI, S.A.

Arantzazu, 21. Tfnoa: 78 08 60
Goribar auzoa, Tfnoa: 78 10 51
OÑATI



SUZUKI

ZERBITZU OFIZIALA



Hasieran asko kostatatu zitzaidan Oñatiko euskara ulertzea, baina orain ohitu naiz.

-Zenbat ordu ematen dituzu kalean?

Goizetik 3 t'erdi eta arratsaldetik 2 t'erdi. Sei bat ordu egunero.

-Hotz asko pasatu al duzu?

Bueno, gehiago da pentsatzea pasatzea baino. Aurtengo neguan egun bat izan genuen oso txarra, zero azpitik 4 gradu egon zirenean, ezin zinen minutu bat bera ere geldik egon, izoztu egiten zinen eta.

-Baina kioskoa jartzekotan omen dira...

Bai, orain ONCE-ren erantzunaren zai gaude, ea Udaletxeak esandako lekua onartzen duen. Sei hilabete lanean egin eta gero, eta herriko batz bestekoaren gainetik saltzen nuenez, neuk eskatu nuen kioskoa jartzea eta ONCE-k plazan, telefonoen ondoan, jartzea proposatu zuen, baina Udaletxeak Maiatzaren 1eko plazan jartzeko bai-mena eman du.

-Zuretzat zein da leku hobea?

Neretzat, puntu bezala ez dut gaizki ikusten hura. Baina nik han ikusten dudana trafiko asko da, nahiko arriskutsua jendearentzat, batez ere jende nagusi eta umeentzat. Gainera oso komodoak gara eta bertan tokatzen ez bazaizu ez gara molestatzen. Nik uste dut jendearentzat errezago dagoela hemen plazan.

-Jendeak zenbat kupoi erosten du?

Gehienak bana, gero binakoak ere bastante dira, hortik gora gutxi. Badira egunero egunero, behar bada kupoi bat bakarrik baina sekula huts egin gabe erosten duten batzuk. Beste batzuk astean pare bat, hiru bat aldiz, eta askok noizbehinka bakarrik. Igual etortzen zaizu kadukatutako kupoi batekin. Ostiraletan kupoitzarra dela eta gehiago saltzen da.

-Sari haundirik tokatu da Oñatin?

Ez momentuz txikiak besterik ez dira tokatu; haundiak emateko gogo faltarik ez dut, baina momentuz ez ditut eman.

-Krisia nabaritzen al da?

Nik urte bete honetan ez dut gora behera haundirik izan; gehien bat azarotan antzeman nion, piskat bajoxeagoa izan zen, baina esaten zuten denda guztietan berdintsu zela, azaroa dela urteko hilerik txarrena. Dena dela, berriro piska bat berdindu nintzen eta hor gabiltz.

-Berdin irabazten duzue begietako gaisotasunak dituzuenak eta bestelako minusbaliak dituztenak?

Bueno, komisiok kobratzen dugu, saltzen dugunaren arabera, baina beste-laguztiak baldintza berdinetan gaude.

iru senide gara begietako gaitz berdinarekin, Donostian dagoen anai, Zumarragan saltzen duen ahizpa eta ni. Gure seme alabek ez dute gaitzik baina berriz ere noiz agertuko den ez dakigu, hori itsuen saria tokatzea bezala da; sekula ez dakizu noiz irtengo den.

H

Kioskoa jartzea norberatzentzat hobea da, baita jendearentzat ere, hor kalean ez zaituelako ikusten; baina bestalde, harremanetarako ez da lekurik aproposena.


Orain dela zazpi urte edo aldakuntza haundiak egon ziren ONCE-n eta gobernuarekin egin zuten tratua arabera hainbeste elbarri hartu behar izan zituzten. Horrela adibidez, Deba Bailadan gehiago dira beste era batzuetako minusbaliak dituztenak bistako kalteak ditugunak baino.

-Bestelako arazoak ere ba omen dira ONCE erakundeetan...

Nik ezin dizut gauza askorik esan, denpora gutxi daramat. Urteetan afiliatua banago ere, duela urte bete plantilan sartu nintzanera arte, ez dut konexio haundirik izan. Badakit protesta asko dagoela; diruarekin zer egiten den galdetzen duenik ere badago. Egia esateko, diru asko batuko da eta nahi adina ez dute inbertituko prestaziotan eta beharko lirakeen gauzetan. Baina ni ez nago hori ziurtatzeko.

-Bukatzeke, euskararen inguruan, nabaritu al duzu diferentziarik Urretxu eta Oñati bitartea?

Hona etorri nitzenean euskara gehiago hitzegiten zela atentzioa eman zidan. Gazte jende, eta helduen artean ere, euskaraz barra barra entzuten da kalean, han ez, han umeen artean batez ere. Behar bada gaizkiago, nahaskilo gehiago baina hobeto edo txartoago hemen gehiago hitzegiten da; eta ez dakit zerk balio duen gehiago, behar bada intenzioak.



SANTA CRUZ

METALEZKO ERAIKUNTZAK
Galdeteria. Erremerteria

Goribar, 5 Tfnoa: 78 10 06 Faxe: 78 33 36 OÑATI



AMETS TAILERRAK

HERGO karabanen banatzailea

Karabanak. Autokarabanak

Mota guztietako erremolkeak

Urte osoan karabanak aterpean gordetzen ditugu

SALMENTA ETA ALOKAIRUA

Berezano auzoa. OÑATI. Tfnoak: 78 25 92 / 78 19 50